



EBAZPENA, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariak 2007ko maiatzaren 25an emandakoa, zeinaren bidez lizentzia ordainduak emateko deialdia egiten den, 2007/2008 ikasturtean material eta proposamen didaktikoak lantzeko, alor jakin batzuetako egoera aztertzeko, intereseko eremuak ikertzeko eta ikastaroak emateko; betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lehentasunezko lerroen garapenari laguntzearen. Deialdiko lizentzien onuradun izan daitezke Sail honen mende dauden bigarren hezkuntzako maisu/maistren eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak, lanbide heziketako irakasle teknikoak, musika eta eszena-arteetako irakasleak, eta hizkuntza-eskola ofizialak, bai eta Sail honentzat lan egiten duten lan-kontratupeko langileak ere, hezkuntza-egitekoak betetzen badituzte.

Kalitatezko hezkuntza ematea da hezkuntza-sistemaren funtsezko helburuetako bat, eta xede hori lortzeko, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko faktore-multzoiari erreparatu behar zaio. Faktore horien artean, aipatzekoak dira irakasleen prestakuntza eta ikerketa-prozesuak, horien bidez egokitzen baitira irakasleak hezkuntza-prozesuak egun bizi duen egoera aldagarri, anitz eta konplexura.

Hori dela-eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezkotzat jotzen du material eta proposamen didaktikoen sorkuntza bultzatzea, zenbait esparruren egoera aztertzea, intereseko zenbait eremu ikertzea eta intereseko alorrei buruzko ikastaroak ematea. Horren guztiaren helburua izango da Sailaren lehentasunezko ildoak garatzen laguntzea; betiere, irakasleen interesarekiko eta haien lan-jardunarekiko lotura zainduta. Izan ere, jarduera horiek baliagarriak izatea da asmoa, bai irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko, bai eta, oro har, hezkuntza-sistemaren kalitatea handitzeko.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- 2007-2008 ikasturtean 24 lizentzia ordaindu emateko deialdia egitea. Hauek izan daitezke horien onuradun: Sail honen mende dauden bigarren hezkuntzako maisu/maistren eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak, lanbide heziketako irakasle teknikoak, musika eta eszena-arteetako irakasleak, eta hizkuntza-eskola ofizialak, bai eta Sail honentzat lan egiten duten lan-kontratupeko langileak ere, hezkuntza-egitekoak betetzen badituzte

Adierazi behar da bigarren artikuluan zerrendatutako Bigarren Hezkuntzako irakasleen taldeetako kideak ez ezik, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, musika eta eszena-arteetako irakasleak eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleak ere izan daitezkeela plaza horien onuradun.

Bigarrena.- Lizentzia ordainduen 24 plaza horien xedea izango da 2007/2008 ikasturtean material eta proposamen didaktikoak lantzea, alor jakin batzuetako egoera aztertzea, intereseko eremuak ikertzea eta ikastaroak ematea; betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren lehentasuneko lerroen garapenari laguntzearen. Lizentziak zortzi talde hauetan banatuko dira:

I. taldea: hezkuntza-inklusioaren alorrarekin lotutako 3 plaza.

Langunea: Lasarte

Gorputz Heziketan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-inklusioaren alorrarekin lotutako plaza bat.

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Gorputz Hezkuntzako espezialitatea duten Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako langileek bete dezakete plaza, baita honako hauek ere: Gorputz Hezkuntzako curriculumak ikasteko oztopoetara moldatzeko ezagutza teorikoak eta praktikoak dituzten langileek; Gorputz Hezkuntzaren eta egokitutako kirolaren esparruko jardura inklusiboetara buruzko prestakuntza dutenek; eta irakasleak sentsibilizatzeko jarduerak egin dituztenek, pertsonen ezintasunak Gorputz Heziketako jardura didaktikoetara egokitzeko eremuan.

Landu beharreko eremuak:

- Material didaktikoak prestatzea Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, eta jarraibideak ematea Gorputz Hezkuntza ikuspegi inklusibotik lantzeko.
- Gorputz Heziketako jardura egoki eta inklusiboen esperientziak biltzea eta aztertzea, hezkuntza-interbentzioaren ikuspegi banatzaileak gainditzeko.
- Eremua garatzen laguntzea, eta, horren harian, mintegietan parte hartzea, irakasleak sentsibilizatzeko ikastaroak ematea (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntzako jardueren bidez), eta Gorputz Hezkuntzaren alorrean egiten diren jardura inklusiboetara aholkua ematea eta horiek gainbegiratzea.
- Materialen ekarpenak egitea Sailak izendatutako webgunera eta gune horren edukia berritzen laguntzea. Materialek Gorputz Hezkuntzaren eremua landuko dute, ikuspegi inklusibotik.

Zereginen Ikaskuntzarako Geletako ikasleen hezkuntza-inklusioarekin eta helduen bizitzarako eta lan-mundurako bidea egiteko eremuarekin lotutako plaza bat.

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako langileek bete dezakete plaza, baita honako hauek ere: aipatutako ikasleek ikasteko izan ditzaketen oztopoak kentzeari eta dagozkion egokitzapenak egiteari buruzko ezagutza teorikoak eta praktikoak dituzten langileek; eta Zereginen Ikaskuntzarako Geletako eta helduen bizitzarako eta lan-mundurako bidea egiteko eremuko jardura inklusiboetara buruzko prestakuntza dutenek.

Landu beharreko eremuak:

- Legedia eta Zereginen Ikaskuntzarako Geletako ikasleekin lan egiteko ereduak aztertzea.
- Ikasle horiekin ikuspegi inklusibotik lan egiteko material didaktikoa prestatzea eta jarraibideak ematea, baita ikasle horiek beste ikasle batzuekin hartu-emanak izateko estrategiak sortzea ere.
- Ikasle horiekin egindako hezkuntza-jardura egoki eta inklusiboen esperientziak biltzea eta aztertzea, hezkuntza-interbentzioaren ikuspegi banatzaileak gainditzeko.
- Eremua garatzen laguntzea, eta, horren harian, mintegietan parte hartzea, irakasleak sentsibilizatzeko ikastaroak ematea (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntzako jardueren bidez) eta ikasle horiekin egiten diren jardura inklusiboetara aholkua ematea eta horiek gainbegiratzea.

- Materialen ekarpenak egitea Sailak izendatutako webgunera eta gune horren edukiak berritzen laguntzea. Aipatutako ikasleekin egindako hezkuntza-jardueren eremua landuko dute materialek, ikuspegi inklusibotik.

Goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleen hezkuntza-inklusioaren alorrarekin lotutako plaza bat

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako langileek bete dezakete plaza, baita honako hauek ere: aipatutako ikasleek ikasteko izan ditzaketen oztopoak kentzeari eta dagozkion egokitzapenak egiteari buruzko ezagutza teorikoak eta praktikoak dituzten langileek; goi-mailako gaitasunen eremuko jardura inklusiboetarako buruzko prestakuntza dutenek; eta gizarte-trebetasunekin eta gizarteratzearekin lotutako prestakuntza dutenek.

Landu beharreko eremuak:

- Legedia eta goi-mailako gaitasunak dituzten ikasleak eskolatzeko ereduak aztertzea.
- Material didaktikoak prestatzea Lehen Hezkuntzarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, eta jarraibideak ematea ikasle horiekin ikuspegi inklusibotik lan egiteko.
- Ikasle horiekin egindako hezkuntza-jardura egoki eta inklusiboen esperientziak biltzea eta aztertzea, hezkuntza-interbentzioaren ikuspegi banatzaileak gainditzeko.
- Eremua garatzen laguntzea, eta, horren harian, mintegietan parte hartzea, irakasleak sentibilizatzeko ikastaroak ematea (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntzako jardueren bidez) eta ikasle horiekin egiten diren jardura inklusiboetarako aholkua ematea eta horiek gainbegiratzea.
- Materialen ekarpenak egitea Sailak izendatutako webgunera eta gune horren edukiak berritzen laguntzea. Aipatutako ikasleekin egindako hezkuntza-jardueren eremua landuko dute materialek, ikuspegi inklusibotik.

II. taldea: kultura-arteko hezkuntzarekin lotutako bi plaza.

Bat Lehen Hezkuntzan emango da eta bestea Bigarren Hezkuntzan.

Langunea: Vitoria-Gasteiz.

Plazaren eskakizunak: 2. HE; esperientzia izatea kulturartekotasuna ikertzen eta harekin lotutako materialak prestatzen; egin beharreko lanei buruzko prestakuntza izatea.

Landu beharreko eremuak:

- Plan espezifikoak martxan jartzea, pertsona immigranteetarako emandako hezkuntza ikuspegi inklusibotik hobetzeko.
- Kultura-arteko hezkuntzarako laguntza-material inklusiboak prestatzea.
- Eskura dauden materialak erabiltzeko proposamen didaktikoak egitea.
- Curriculum-proposamenak aztertzea eta prestatzea.
- Berritzeguneetarako aholkulariei laguntza eta aholkuak ematea.
- Eremu horretan eta harekin lotutako programen ikerketetarako lizentziak dituztenekin elkarlanean aritzea, eta programa aurrera eramateko antolatzen diren prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntzako jardueren bidez).

III. taldea: aniztasuna lantzeko bi plaza.

Langunea: Bilbao.

aniztasuna eta ikasle ijitoen integrazioa bultzatzeko plaza bat

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Bigarren Hezkuntzako langileak. Erekuarekiko interesa eta motibazioa; ezagutza teorikoak eta praktikoak izatea Eskola Inklusiboari buruz eta ingurune txarretan ekitatea lortzeari buruz, eta ikasle ijitoen munduari buruzko ezagutza teorikoak eta praktikoak izatea. Esperientzia izatea taldeak dinamizatzen eta koordinatzen, eta informazioko eta komunikazioko teknologiak erabiltzeko gaitasun ertaina izatea.

Landu beharreko eremuak:

Gizarte Aniztasunaren arloko arduradunarekin lan egitea, egiteko hauetan:

- Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plan bat egiten.
- Ikasle ijitoak dituzten eskoletako material didaktikoak aztertzeko gida bat egiten.
- Ikasle ijitoak dauden geletan eta eskoletan nola lan egin behar den zehazteko proposamenak diseinatzen.
- Aniztasuna tratatzeko plan bereziek izaera inklusiboa izango dutela bermatzeko jarraibideak prestatzen.
- Eremurako diseinatutako prestakuntza koordinatzen eta ematen (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntza-jardueren bidez).

Aniztasuna eta PROA (hezkuntza indartzeko, orientatzeko eta laguntzeko programa) bultzatzeko plaza bat.

Plazaren eskakizunak: 2. HE eta ingeleseko maila ertaina. Erekuarekiko interes eta motibazio handia izatea. Erekuarekiko interesa eta motibazioa; ezagutza teorikoak eta praktikoak izatea Eskola Inklusiboari buruz, ingurune txarretan ekitatea lortzeari buruz, eta PROA programari buruz. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza sakon ezagutzea, esperientzia izatea taldeak dinamizatzen eta koordinatzen, eta informazioko eta komunikazioko teknologiak erabiltzeko gaitasun handia izatea.

Landu beharreko eremuak:

Gizarte Aniztasunaren arloko arduradunarekin lan egitea, egiteko hauetan:

- Aniztasuna tratatzeko plan bereziek izaera inklusiboa izango dutela bermatzeko jarraibideak prestatzen laguntzea.
- PROA programa kudeatzea.
- PROA programan parte hartzea errazteko gida bat prestatzea eta programa horretan parte hartzen duten hezkuntza-zentroen sare bat sortzea.
- Proiektuak ebaluatzeko jarraibideak prestatzea.
- Jarduera egokiak biltzea, zabaltzea eta trukatzeko.
- Eremuan diseinatutako prestakuntza koordinatzen eta ematen (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntza-jardueren bidez).

IV. taldea: generoen eta berdintasunaren eremuko plaza bat.

Langunea: Bilbao.

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Interes eta motibazio handia izatea eremu horretan eta hari buruzko ezagutza teorikoak eta praktikoak izatea. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza sakon ezagutzea, esperientzia izatea taldeak dinamizatzen eta koordinatzen, eta informazioko eta komunikazioko teknologiak erabiltzeko gaitasun ertaina izatea.

Landu beharreko eremuak:

“Berdintasuna eta generoa” Hezkuntza Berritzeko Lehentasuneko Lerroaren arduradunarekin lan egitea, egiteko hauetan:

- Hezkidetzari eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako Esparru Plana diseinatzen.
- 10 orduko prestakuntza-modulu bat (A modulua) egiten, hezkuntza-zentroetarako.
- Hizkuntza ez-sexistari buruzko gida bat prestatzen.
- Hezkidetzaren ezarpena neurtzeko adierazleak zehazten.
- Eremuan diseinatutako prestakuntza koordinatzen eta ematen (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntza-jardueren bidez).

V. taldea: Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako plaza bat, eskolen zuzendaritzarekin lotutakoa.

Langunea: Bilbao.

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Zuzendaritza-taldeak prestatzeko interes eta motibazio handia izatea; hezkuntza-zentro publikoen zuzendaritzarekiko lotutako gai guztiei buruzko ezagutza teorikoa eta praktikoa izatea; IKTak ongi erabiltzea; eskola-zuzendaritzari buruzko prestakuntza eta esperientzia arlo horretan; esperientzia izatea prestakuntzan, aholkularitzan eta materialen prestaketan eta zuzendaritza-lanei buruzko prestakuntza-ikastaroak zuzentzen, sortzen, koordinatzen, kudeatzen eta ematen.

Landu beharreko eremuak:

- Zentro publikoetako zuzendaritza-taldeei prestakuntza-ikastaroak (bai zuzenekoak, bai urrutiko jardueren bidezkoak) ematea eta horiek kudeatzea.
- Zuzendaritza-taldeak prestatzeko materialak prestatzea, euskaraz eta gaztelaniaz.
- Zentro publikoetako zuzendaritzek dituzten premiak hautematea eta horiei erantzuteko materialak prestatzea.

VI. taldea: Bizikidetzarako hezkuntza, bakea eta giza eskubideak sustatzeko bi plaza.

Langunea: Vitoria- Gasteiz

Plazaren eskakizunak: 2. HE; IKTak erabiltzeko gai izatea; gaiarekiko motibazio handia izatea; ezagutza teorikoak eta praktikoak izatea arlo hauetan: balioen hezkuntzan, hezkidetzan, gatazken kudeaketan, garapen pertsonal eta sozialean, gelako eta zentroko bizikidetzak kudeatzeko estrategietan eta tresnetan, emozioen eta sentimenduen tratamenduan, bizikidetzak eta diziplina positiboan, eta zaintzaren eta arduraren etikan. Esperientzia izatea jardunbide onak eta berrikuntza-proiektuak lantzen, koordinatzen eta dinamizatzen, eta prestakuntza izatea Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako programetako gaietan.

Landu beharreko eremuak:

- Programa martxan jartzeko eta sustatzeko ardura duen taldearekin lan egitea programaren helburuekin lotutako gaietan.
- Hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzeko kanpainak eta materialak diseinatzea.
- Zentroei laguntzeko materialak biltzea, prestatzea eta banatzea, euskaraz, gaztelaniaz eta formatu aniztetan (grafikoak, ikus-entzunezkoak, digitalak, web-orriak, etab.).
- Programekin lotutako prestakuntza-ikastaroak sortzea, koordinatzea, kudeatzea eta ematea (bai zuzenean, bai urrutiko jardueren bidez).
- Curriculum- eta metodologia-proposamenak diseinatzea, jarrera gizartekoiak lantzeko eta gatazkak tratatzeko.

VII. taldea: Ikas Komunitate Dialogikoen programa lantzeko plaza bat.

Langunea: Bilbao.

Plazaren eskakizunak: 2. HE; gaiarekiko motibazio eta interes handia izatea; ezagutza teorikoak eta praktikoak izatea arlo hauetan: ikaskuntza dialogikoan, literatura-tertulietan, talde interaktiboetan, komunitatearen partaidetzaren bidez zentroak modu demokratikoan antolatzen, eta gelako eta zentroko bizikidetzak kudeatzeko estrategietan eta tresnetan. Esperientzia izatea Komunitateei buruzko proiektuak lantzen, koordinatzen eta dinamizatzen; esperientzia izatea ikastaroak antolatzen eta irakasleei gaiari buruzko prestakuntza ematen; programarekin lotutako gaiari buruzko prestakuntza izatea eta esperientzia izatea materialak prestatzen.

Landu beharreko eremuak:

- Programaren arduradunaren lan egitea, egiteko hauetan:
 - Ikas Komunitateen Proiektua zabaltzeko Plana prestatzen
 - Jardunaldiak, ikastaroak eta mintegiak prestatzen.
 - Agiri teorikoak prestatzen, estrategiak diseinatzen eta ikaskuntza dialogikoarekin lotutako berrikuntzak zentroetan ezartzen.
 - Zentroek transformazio-prozesuari buruz eta Ikas Komunitateek proposatutako berrikuntzei buruz emandako materiala biltzen eta antolatzen.
 - Ikas Komunitateak dituzten zentroek sarean lan egin dezaten sustatzen eta lan hori dinamizatzen.

VIII. taldea: Europako Gizarte Esparrua lantzeko plaza bat.

Langunea: Lasarte

Plazaren eskakizunak: Lehen edo Bigarren hezkuntzako irakasleak, 2. hizkuntza-eskakizuna dutenak. Ingelesa jakitearen egiaztagiria, hizkuntza-eskola ofizialak edo horri parekatutako erakundeak emana. Prestakuntza izatea Irakaskuntzaren dimentsio europarrean: hezkuntzari buruzko programa europarren berri izatea, materialena, informazio-iturriena eta abarrena. Esperientzia izatea hezkuntzaren dimentsio europarrarekin lotutako proiektuak lantzen, koordinatzen eta dinamizatzen. Esperientzia izatea irakasleei prestakuntza ematen. IKTak ongi erabiltzen jakitea. Gaiarekiko motibazio handia izatea eta taldean lan egiteko gaitasun handia izatea.

Landu beharreko eremuak:

- Hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea. Europari buruzko informazioa ematea Hezkuntza-zentroei; hala nola, Europako hezkuntza-sistemi, esperientziei, trukeei eta programei buruzkoa (etengabeko ikaskuntzako programa barne — lehen Sokrates programa izandakoa—) eta sare europarrei buruzkoa.
- Ikastetxeek dimentsio europarrari buruz azaldutako esperientziak, berrikuntza-proiektuak eta antzekoak dinamizatzen laguntzea.
- EAEn ekintza horietan pilatzen den esperientziaren berri ematea.
- Gaiari buruzko webguneak kudeatzea.
- Dokumentazio-lanak: europar ekimenei buruzko liburutegi birtualaren mantentze-lanak egitea, Sailak izendatutako webgunean.
- Eremuko gaiei buruzko prestakuntza-ikastaroak ematea (bai zuzenean, bai urrutiko prestakuntza-jardueren bidez).
- Programa europarren arduradunaren lan egitea eta harekin koordinatzea.

IX taldea: Hizkuntzen lanketa integratuko programari atxikitako lau plaza. Bi Lehen Hezkuntzan emango dira eta beste bi Bigarren Hezkuntzan.

Langunea: Bilbao.

Lehen Hezkuntzako plazen eskakizunak: 2. HE eta ingeleseko gaitasun-agiria; esperientzia izatea hizkuntzen didaktikari buruzko material didaktikoak egiten eta aplikatzen; hizkuntza curriculum-edukien bidez irakasteko moduei buruzko prestakuntza izatea.

Landu beharreko eremuak:

- Hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa) erabiliko dituzten unitate didaktikoen ereduak prestatzen jarraitzea; betiere, Lehen Hezkuntzarako programak landutako sekuentziazioaren esparruko irizpideak aintzat hartuta.
- Lehen Hezkuntza guztirako prozeduren sekuentziaren plangintza egitea.
- Zentroko hizkuntza-proiektuak aurrera eramateko gidak egitea.
- Programa oso bat egitea hiru hizkuntzetarako (helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak).
- Berritzeguneetako aholkulariekin lan egitea, landutako unitateak probatzeko, haiei oniritzia emateko eta abarrerako.
- Eremurako diseinatutako prestakuntza ematea eta koordinatzea (bai zuzenean, bai urrutiko jardueren bidez).

Bigarren Hezkuntzako plazei eskatutako baldintzak: 2 HE eta ingeleseko gaitasun-agiria. Batek euskal hizkuntza eta literaturako espezialitatea izan beharko du eta besteak espainiera eta literaturakoa. Esperientzia izan behar dute hizkuntzen didaktikarekin lotutako material didaktikoak prestatzen eta aplikatzen; eta hizkuntzen didaktikari eta hizkuntzen tratamendu integratuari buruzko prestakuntza izan behar dute.

Talde-lana egingo da, hauek egiteko:

- Hiru hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa) erabiliko dituzten unitate didaktikoen ereduak prestatzen jarraitzeko; betiere, Bigarren Hezkuntzarako programak landutako sekuentziazioaren esparruko irizpideak aintzat hartuta.
- Programa oso bat egiteko hiru hizkuntzetarako (helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak).
- Bigarren Hezkuntza guztirako prozeduren sekuentziaren plangintza egiteko.
- Zentroko hizkuntza-proiektuak gauzatzeko gidak egiteko.
- Berritzeguneetako aholkulariekin lan egiteko, landutako unitateak probatzeko, haiei oniritzia emateko eta abarrerako.

- Eremurako diseinatutako prestakuntza emateko eta koordinatzeko (bai zuzenean, bai urrutiko jardueren bidez).

X. taldea: atzerriko hizkuntzen eremuko plaza bat: frantsesa

Langunea: Lasarte

Plazaren eskakizunak: 2. HE. Bigarren Hezkuntzako irakasleak, frantses filologia edo hizkuntza-eskola ofizialeko gaitasun-agiria duena. Hizkuntzen didaktikan eta tratamendu integratuari buruzko prestakuntza izatea. Esperientzia izatea hizkuntzen irakaskuntzako proiektu berritzaileetan, eta, bereziki, frantsesa irakasteko proiektuetan.

Landu beharreko eremuak:

Atzerriko hizkuntzen arduradunarekin lan egitea, egiteko hauetan:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan frantsesaren eremuko edukiei buruzko proposamen orokor bat egiten, atzerriko hizkuntzen programak ezarritako irizpideak betez.
- EAEn frantsesa irakasten duten edo eremu ez linguistikoak frantsesez (hizkuntza anitzeko esperientzian) lantzen dituzten irakasleen prestakuntza-premiak hautematen, eta premia horiei erantzuteko urteko prestakuntza-plan bat egiten.
- Frantseseko irakasleak edo eremu ez linguistikoak frantsesez lantzen dituzten irakasleen prestakuntza koordinatzen, kudeatzen, eta, beharrezkoa bada, prestakuntza hori ematen.
- Lanak atzerriko hizkuntzen programan lan egiten duten gainerako kideekin koordinatzen.

XI. taldea: hezkuntza zientifikoaren alorreko bi plaza.

Langunea: Lasarte.

Plazaren eskakizunak: 2. HE eta ingelesa ondo jakitea; Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako langileek bete ditzakete, baldin eta IKTak erabiltzen badakite, zientzien didaktikan prestakuntza badute, esperientzia badute alor zientifikoekin lotutako proiektuak kudeatzen eta ezartzen, eta eskarmentua badute berrikuntzaren alorrean eta material didaktikoak prestatzen.

Landu beharreko eremuak:

- Hezkuntza zientifikoko programarekiko koordinazioa eta lankidetzaren lantzea, haren eremuko ekintzak aurrera eramateko.
- E-learning ikastaroak prestatzea eta egitea, arlo zientifikoetako hezkuntza-edukiak jasoz.
- Programaren eta hari lotutako plataformaren ekintzen berri emateko antolatzen diren prestakuntza-jardueretan parte hartzea.

XII. taldea: Garapen iraunkorrerako hezkuntzarekin lotutako lau plaza.

Garapen iraunkorrerako hezkuntzarekin lotutako hiru plaza Bilbaon.

Eskakizunak: 2. HE; Lehen edo Bigarren Hezkuntzako irakasleak, esperientzia dutenak garapen iraunkorrerako hezkuntza-proiektuak koordinatzen, lantzen eta dinamizatzen; batik bat, Eskola Agenda 21 programan. Halaber, esperientzia izan behar dute material didaktikoak prestatzen eta argitaratzen.

Landu beharreko eremuak:

- Eskola Agenda 21 programak aurrera eramateko material didaktikoak prestatzea.
- Eskola Agenda 21 programetarako berrikuntza-proposamenak egitea.
- Eskola Agenda 21 programarekin lotutako materialak ezagutaraztea.
- Eskola Agenda 21 programako jardueren, praktiken edo esperientzien datu-baseak sortzea eta horien mantentze-lanak egitea.
- Eskola Agenda 21 programarekin lotutako prestakuntza-ikastaroak koordinatzea, kudeatzea eta ematea (bai zuzenean, bai urrutiko jardueren bidez).
- Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten zentroen arteko sare birtualak dinamizatzea.

Garapen iraunkorrerako hezkuntzarekin lotutako plaza bat Donostian.

Eskakizunak: 2. HE; Lehen edo Bigarren Hezkuntzako irakasleak, esperientzia dutenak garapen iraunkorrerako hezkuntza-proiektuak koordinatzen, lantzen eta dinamizatzen; batik bat, Eskola Agenda 21 programan. Halaber, esperientzia izan behar dute material didaktikoak prestatzen.

Landu beharreko eremuak:

- Eskola Agenda 21 programetarako berrikuntza-proposamenak egitea.
- Eskola Agenda 21 programarekin lotutako materialak aurkeztea eta ezagutaraztea.
- Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten zentroen arteko sare birtualak dinamizatzea.
- Iraunkortasunerako prestakuntza-ikastaroak prestatzea, kudeatzea eta ematea.
- Azken hezkuntza-erreformak finkatutako iraunkortasunerako hezkuntzari buruzko curriculum-alderdiak aztertzea eta horiek aplikatzeko eta ebaluatzeko irizpideen plangintza egitea.

Hirugarrena.– Deialdian honako hauek parte hartu ahal izango dute: karrerako funtzionarioek; lan-kontratu mugagabea dutela, irakaskuntza-lanetan dihardutenek; eta 2007ko irailaren 1ean lan-kontratu mugagabea duten erlijio-irakasleek. Horiek guztiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden eta unibertsitate-mailakoak ez diren zentro publikoetan hezkuntza-egitekoak betetzen aritu behar dute.

Laugarrena.– Deialdian parte hartuko duten hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.– Hezkuntza-egitekotan aktibo egotea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zuzenean kudeatzen dituen zentzoren batean. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 61. artikuluan jasota dauden borondatezko lan-utzialdirako edozein modalitatetan dauden izangaiek ere parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, eta hezkuntza-egitekoak berriz betetzen hasteko lizentzia emango zaie, 2007-2008 ikasturtean eginkizunei ekiteko.

2.– Gutxienez hiru urtez aritua izatea hezkuntza-egitekotan Hezkuntza-Administrazioan.

3.– Atzerriko zentroetara atxikita ez egotea, lizentziaren onuradun izango den aldian.

4.– Ikerketa eta irakaskuntzari edo ikuskapen-lanari laguntzeko zerbitzuetan ari diren izangaiek behin betiko destinoa izan beharko dute, edo hala nahi izanez gero, zerbitzu-betekizunari uko egin eta eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute agiria, hautatua izanez gero egikaritzekotan.

Bosgarrena.– Deialdi honetan hautatzen diren irakasleek eskubidea izango dute plaza gordetzeko, behin betikoa badute; eta jatorrizko zentroa edo lurraldea gordetzeko eskubidea plaza behin-behinekoa dutenek, betiere, Langileen Kudeaketarako Zuzendaritzak ikasturte hasieran behin betiko destinoa ez duten irakasleak destinatzeko ezartzen dituen irizpide orokorreari jarraiki egingo da.

Seigarrena.– Ikerketarako lizentziek 2008-2009 ikasturtearen hasieran izango dute epe-muga, hezkuntza-maila bakoitzari ofizialki dagokion hasiera-data hartuko da kontuan; bestalde, Sailak norbaiten lana oso positibotzat ebaluatu badu, aipatu lizentzia luzatu ahal izango zaio 2008-2009 ikasturterako.

Zazpigarrena.– Deialdi honetan hautatzen diren irakasleek eskubidea izango dute plazari dagozkion ordainsarien %100a jasotzeko, lanaldi zatituko ordutegia beteko dute eta jatorrizko zentroaren antzeko egutegia eta destinoko zentrorra egokitutakoa izango dute, lizentziaren hasieran ezarriko direnak.

Zortzigarrena.– Hautatutako irakasleek, ordaindutako lizentziak irauten duen denbora-epean, ebazpen honetako bigarren atalean adierazten diren herrietan beteko dute beren lana, horretarako jarriko zaien tutore baten mendekotasun funtzionalaren pean.

Bederatzigarrena.– Talde batean esleitzen ez diren plazak beste talde batekoei erantsi ahal izango zaizkie, eta ez da plazarik hutsik geratuko.

Hamargarrena.– Deialdi honetako ordaindutako lizentziatarako izangaiek I. eranskineko ereduari jarraiki bete beharko dute eskaera, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileen Kudeaketarako zuzendariari helarazi.

Eskaerak, hurrengo atalean adierazten diren dokumentazioekin batera, 2007ko ekainaren 4a arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne, bakoitzari dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan.

Hamaikagarrena.– Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

1.– Izangaiek memoria bat idatzi beharko dute, gehienez bost orrialdekoa, nork berea eta bakarka —taldean egindako memoriak bat-batean baztertuko dira—, eta, bertan, nahitaez egin beharko diote erreferentzia 2007-2008 ikasturterako lan-proiektuari.

2.– Ikasketa- eta lan-merezimenduen ziurtagiriak, eskatutako lizentziarekin zerikusia duten lan-arlokoak. Ebazpen honetako II. eranskinean zehazten diren dokumentuen bidez ziurtatu beharko dira. Deialdi honetarako balioa izan dezaten, honako hauek antolatutako jarduerak bakar-bakarrik hartuko dira kontuan: hezkuntza-administrazioek; irabazi asmorik gabeko erakundeek eta hezkuntza-administrazio horiek berek homologatutakoek edo onartutakoek; eta unibertsitateak.

3.– Aurreko atalean aipatutako ikasketa- eta lan-merezimenduak ziurtatzeko, jatorrizko dokumentazioak erantsiko dira edo behar bezala konpultsatuta. Dokumentazioen erlazioa zenbatuta, data jarrita eta sinatuta aurkeztu beharko da. Konpultsatzeari buruz:

3.1.– Konpultsatzeak emateko ahalmena duen administrazio-organotzat hauek hartzen dira: hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako langileen unitateak.



3.2.– Horiez gain, ontzat emango dira interesatua ikasten edo lanean aritu den erakundeak emandako ziurtagiriaren kopia bertako administrazio-organismoak konpultsatzen badu.

3.3.– Dokumentu bat orrialde batek baino gehiagok osatuz gero, egiaztatzeko eginbidea, jatorrizkoarekin bat datorrela ziurtatzeko, orrialde guztietan adieraziko da.

Hamabigarrena.– Deialdia Langileen Kudeaketarako Zuzendariak erabakiko du, honako kide hauek osatuko duten batzordearen proposamenari jarraiki:

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria edo hark esku ematen dion beste norbait; presidente izango da.
- Langileen Kudeaketarako Burua edo hark esku ematen dion beste norbait.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako bi teknikari.
- Sindikatu bakoitzeko ordezkari bana, Unibertsitate-mailakoa ez den irakaskuntza publikoan aritzen diren langileen lan-baldintzak erregulatzeko Akordioa Osatu zuten Batzordean parte hartzen duten sindikatuetakoa.
- Langileen Kudeaketarako Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari-lanak beteko dituen.

Hamahirugarrena.– Elkarrizketak eta izangaiek aurkeztu behar dituzten memoriak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako kideek baloratuko dituzte; horiek, halaber, hamabigarren artikuluan aipatutako Batzordean parte hartzen dute. Kideek laguntza zehatza eskatu ahal izango dute, memoriaren espezializazio-mailak hala behar duela baloratzen duten kasuetan. Hautatua izateko betebeharreko baldintza hau da: gutxienez, puntuazioaren %50 lortzea, bai memorian, bai elkarrizketan.

Hamalagarrena.– Hautatzeaz arduratuko den Batzordeak, erabaki-proposamena egiterakoan, kontuan hartuko du deialdi honetako bigarren eranskinean adierazitako puntuazio-baremoa.

Aurrehautatuen artean puntuazioan hainbana gertatuz gero, jarraian adierazten diren irizpideen arabera erabakiko da:

Lehendabizikoa – Puntu gehien elkarrizketan.

Bigarrena.– Puntu gehien memorian.

Hirugarrena.– Puntu gehien hezkuntza-egitekotan izandako lan-esperientziaren atalean.

Laugarrena.– Puntu gehien prestakuntza-ikastaroen atalean.

Bosgarrena.– Puntu gehien arloari buruzko argitalpenen edo ikerketen atalean.

Seigarrena.– Zozketa egingo da puntuazioan hainbana egin duten aurrehautatuen artean.

Hamabosgarrena.– Hautatzeaz arduratuko den Batzordeak proposamena Langileen Kudeaketarako Zuzendariari jakinaraziko dio, eta hark, ebazpen baten bidez, hautatuen behin-behineko zerrenda onartuko du; ondoren, jendaurrean jarriko da hezkuntza lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan, eta hiru asteguneko epea zabalduko da erreklamazioak egiteko.

Hamaseigarrena.– Erreklamazioak aztertu ondoren, Hautatzeaz arduratu den Batzordeak behin betiko erabakiaren proposamena helaraziko dio Langileen Kudeaketarako Zuzendariari, behin betiko akta edo aktekin batera; bertan, hautagai guztien balorazioak adieraziko dira, baita hautatukoeren zerrenda ere.



Behin betiko ebazpena hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan jarriko da jendaurrean, eta horren kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordearen aurrean, argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamazazpigarrena.– Ordaindutako lizentzien deialdi honek lehenetasuna izango du zerbitzu-eginkizunetarako plazak osatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egin ditzakeen deialdien aurrean; hortaz, izangairen bat hautatuz gero, parte hartu duen beste deialdi guztietatik kanpo geratuko da.

Izangai batek aldi berean ikerketarako ordaindutako lizentzia bat lortuz gero, 2007-2008 ikasturterako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lehendik egindako deialdiren batekoa, interesatuak gehien komeni zaion aukera hautatu ahal izango du, bere interesen alde egite aldera.

Aurreko ataletan araututakoa alde batera utzi gabe, 2006ko ekainaren 23a arte (hori ere barne) ordaindutako lizentziei uko egiteko aukera dago.

Hamazortzi.– Lizentziaren onuradun izan bitartean, ezin izango da haren eginkizuna ez den ordaindutako bestelako jarduerarik egin, ulertzen baita dedikazioa erabatekoa dela. Atal honetan ezarritakoa ez betetzeak ondorio hauek ekar ditzake: lizentzia bertan behera uztea, eta, hala dagokiola baloraturuz gero, jasotako ordainsaria itzultzea.

Hemeretzigarrena.– Ordaindutako lizentziak irauten duen denbora-epean, esleitutako tutoreak hautatua izan den pertsonak egindako lanaren berri emango dio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari, eta 2008ko apirilaren 30a baino lehen egindako lanari eta haren balorazioari buruzko txostena bidaliko dio.

Jarraipen-batzorde batek, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako bi teknikarik eta Langileen Kudeaketarako Zuzendaritzako bi teknikarik osatua, onuradunekin elkarrizketak egin ahal izango ditu edo haiei buruzko informazio gehiago eskatu ahal izango du, bai aipatutako epeetan, bai hala egoki iruditzen zaion edozein unetan.

Hogeigarrena.– Memoriak zein egindako lanak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren esku geratuko dira, eta horiek argitaratzeko eskubidea bere egingo du, jabetza intelektualari buruz indarrean dagoen araudiari jarraiki. Horrezaz gain, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ahalmena izango du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestakuntzarako ikastaroak edo jardunaldiak antolatu nahi izanez gero, hark parte har dezan edo lagun dezan eskatzeko.

Hogeita batgarrena.– Ebazpen honen kontra gorako errekurtsioa jarri ahal izango da Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordearen aurrean, argitaratu eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraiki.

AZKEN XEDAPENA

Prozedura-arloan Ebazpen honetan arautu gabeko orotan, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 25ean

Langileen Kudeaketarako Zuzendaria

ITZIAR GARAIZAR AGIRRE.



I. ERANSKINA / ANEXO I

LIZENTZIA ORDAINDUAREN ESKABIDEA, 2007/2008 IKASTURTEAN MATERIAL ETA PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK LANDU, ALOR JAKIN BATZUETAKO EGOERA AZTERTU ETA IKASTAROAK EMATEKO; BETIERE, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN LEHENTASUNEZKO LERROEN GARAPENARI ETA HAREN INTERESEKO EREMUETAKO IKERKETARI LAGUNTZEAREN / SOLICITUD LICENCIA RETRIBUIDA PARA LA ELABORACIÓN DE MATERIALES Y PROPUESTAS DIDÁCTICAS, EL ANÁLISIS DE LA SITUACIÓN EN DETERMINADOS ÁMBITOS, Y LA INVESTIGACIÓN EN CAMPOS DE INTERÉS, ASÍ COMO LA IMPARTICIÓN DE CURSOS, SIEMPRE CON EL OBJETIVO DE DAR APOYO AL DESARROLLO DE LAS LÍNEAS PRIORITARIAS DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DURANTE EL CURSO 2007/2008

1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
1. ABIZENA/ APELLIDO 1	2. ABIZENA / APELLIDO 2	IZENA / NOMBRE	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
N.A.N./D.N.I.	LEZ /N.R.P.	ATALA/GR UPO	EGOERA PROF. /SITUAC. PROFE.
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
HELBIDEA / DOMICILIO	P.K. /C.P.	HERRIA /LOCALIDAD	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
LURRALDEA / TERRITORIO	TELEFONOA / TELÉFONO	E-MAIL	

2. DATU PROFESIONALAK / DATOS PROFESIONALES

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
DESTINOKO IKASTETXEA / CENTRO DE DESTINO	HERRIA / LOCALIDAD	LURRALDEA / TERRITORIO
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
MAILA / NIVEL	IRAKASGAIA / ASIGNATURA	HIZKUNTZA / IDIOMA



3.- ESKAERA / SOLICITUD

ESKATUTAKO LIZENTZIA MOTA / MODALIDAD DE LICENCIA SOLICITADA		
<input type="checkbox"/> I. TALDEA. HEZKUNTZA-INKLUSIOAREN ESPARRUA	<input type="checkbox"/> GRUPO I. ÁMBITO DE LA INCLUSIÓN EDUCATIVA	
<input type="checkbox"/> II. TALDEA. ESPARRUA: KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA	<input type="checkbox"/> GRUPO II. ÁMBITO DE LA EDUCACIÓN INTERCULTURAL	
<input type="checkbox"/> III. TALDEA. ESPARRUA: ANIZTASUNA	<input type="checkbox"/> GRUPO III. ÁMBITO DE LA DIVERSIDAD.	
<input type="checkbox"/> IV. TALDEA. ESPARRUA: BERDINTASUNA ETA GENEROA	<input type="checkbox"/> GRUPO IV. ÁMBITO DE LA IGUALDAD Y EL GÉNERO	
<input type="checkbox"/> V. TALDEA. ESPARRUA: ESKOLA-ZUZENDARITZA	<input type="checkbox"/> .GRUPO V. ÁMBITO DE LA DIRECCIÓN ESCOLAR	
<input type="checkbox"/> VI. TALDEA. ESPARRUA: BIZIKIDETZARAKO, BAKERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA	<input type="checkbox"/> GRUPO VI. ÁMBITO DE LA EDUCACIÓN PARA LA CONVIVENCIA, LA PAZ Y LOS DERECHOS HUMANOS	
<input type="checkbox"/> VII. TALDEA. ESPARRUA: HEZKUNTZA KOMUNITATE DIALOGIKOEN PROGRAMA	<input type="checkbox"/> GRUPO VII. ÁMBITO DEL PROGRAMA DE COMUNIDADES DE APRENDIZAJE DIALÓGICAS	
<input type="checkbox"/> VIII. TALDEA: EUROPAKO GIZARTE-ESPARRUA	<input type="checkbox"/> GRUPO VIII. ÁMBITO DEL MARCO SOCIAL EUROPEO	
<input type="checkbox"/> IX. TALDEA. ESPARRUA: HIZKUNTZEN TRATAMENDU INTEGRATUAREN PROGRAMA	<input type="checkbox"/> GRUPO IX. ÁMBITO DEL PROGRAMA DEL TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS	
<input type="checkbox"/> X. TALDEA. ESPARRUA: ATZERRIKO HIZKUNTZAK: FRANTSESA	<input type="checkbox"/> GRUPO X. ÁMBITO DE LAS LENGUAS EXTRANJERAS: FRANCÉS	
<input type="checkbox"/> XI. TALDEA. ESPARRUA: HEZKUNTZA ZIENTIFIKOA	<input type="checkbox"/> GRUPO XI. ÁMBITO DE LA EDUCACIÓN CIENTÍFICA	
<input type="checkbox"/> XII. TALDEA. ESPARRUA: GARAPEN IRAUNKORRERAKO HEZKUNTZA	<input type="checkbox"/> GRUPO XII. ÁMBITO DE LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE	
<p>Espresuki adierazten dut, eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eta deialdian eskatzen diren baldintza guztiak, bat ere huts egin gabe, betetzen ditudala.</p>		<p>Declaro expresamente ser ciertos los datos consignados en esta solicitud, así como reunir todos y cada uno de los requisitos exigidos en la convocatoria.</p>
TOKIA / LUGAR		SARRERAKO ZIGILUA / SELLO DE ENTRADA
DATA / FECHA	SINADURA / FIRMA	

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA / DIRECCION DE GESTIÓN DE PERSONAL



II. ERANSKINA

BAREMOA:

Baldintza: gutxienez, puntuazioaren %50 lortzea, bai memorian, bai elkarrizketan.

1. Memoria: 2 puntu
2. Elkarrizketa: 2 puntu
3. Alor horretan izandako esperientzia: 2 puntu
4. Alor horretan izandako prestakuntza: 2 puntu
5. Alor horri buruz egindako argitalpenak edo ikerketak: 2 puntu

GUZTIRA: 10 PUNTU

XEHETASUNAK:

1.– Memorian 2007-2008 ikasturteko lan-proiektua eta hori egiteko erabiliko diren baliabideak azaldu behar dira. Gehienez ere, bost orri izan beharko ditu.

2.– Plaza desberdinetan izandako esperientzia baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

-I. taldeko plazak:

- Gorputz-hezkuntzan premia bereziak dituzten ikasleak integratzeaz arduratzen den plaza:
 - Plazaren ezaugarriekin lotutako proiektu, mintegi eta lan-taldeetan parte hartzea: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
 - Plazaren ezaugarriekin lotutako esperientziak eta proiektuak koordinatzea: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Zereginen Ikaskuntzarako Gelan lan egiteko plaza:
 - Zereginen Ikaskuntzarako Gelan irakasle gisa lan egina izatea: 0,25 puntu ikasturte bakoitzeko.
 - Plazaren ezaugarriekin lotutako esperientziak eta proiektuak koordinatzea: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.
 - Plazaren ezaugarriekin lotutako proiektu, mintegi eta lan-taldeetan parte hartzea: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Goi-mailako Gaitasunetan lan egiteko plaza:
 - Plazaren ezaugarriekin lotutako proiektu, mintegi eta lan-taldeetan parte hartzea: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
 - Plazaren ezaugarriekin lotutako esperientziak eta proiektuak koordinatzea: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.

- II. taldeko plazak:

- Alor horrekin lotutako proiektu, mintegi eta lan-taldeetan parte hartzea: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Alor horrekin lotutako ikasmaterialak egiten eta aplikatzen esperientzia izatea: gehienez ere, puntu bat.



- Zenbait elkarte eta erakunderekin lankidetzan, alor horrekin lotutako proiektuetan parte hartzea eta/edo horiek garatzea: gehienez ere, puntu bat.

- III. taldeko plazak:

- Aniztasuna eta ikasle ijitoen integrazioa bultzatzeko plaza:
 - Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko taldeak edo mintegiak koordinatzea: gehienez ere, 0,40 puntu.
 - Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko bideei eta estrategiei buruzko mintegietan edo lan-taldeetan parte hartzea: gehienez ere, 0,20 puntu.
 - Ikasgelan edo ikastetxean, ikasle ijitoen integrazioa lortzen lan egina izatea: gehienez ere, puntu bat.
 - Ikasgelan edo ikastetxean, aniztasuna lantzeko estrategia integratzaileak lantzea: gehienez ere, 0,40 puntu.
- Aniztasuna eta PROA (hezkuntza indartzeko, orientatzeko eta laguntzeko programa) bultzatzeko plaza:
 - Aniztasuna lantzeko edo PROA programa koordinatzeko mintegiak edo lan-taldeak koordinatzea: gehienez ere, 0,40 puntu.
 - Ikasgelan edo ikastetxean aniztasuna lantzeko estrategia integratzaileak lantzea: gehienez ere, puntu bat.
 - Desberdintasunak gainditzeko bideei eta estrategiei buruzko mintegietan edo lan-taldeetan nahiz Ikas Komunitateen estrategietan parte hartzea: 0,20 puntu ikastaro bakoitzeko.

- IV. taldeko plazak:

- Hezkidetzari nahiz genero eta berdintasunari buruzko gaiak lantzeko edo genero-indarkeriaren aurka egiteko lan-taldeak edo mintegiak koordinatzea: gehienez ere, 0,40 puntu.
- Ikasgelan edo ikastetxean, hezkidetzari nahiz genero eta berdintasunari buruzko gaiak lantzeko edo genero-indarkeriaren aurka egiteko proiektuak garatzea: gehienez ere, 0,40 puntu.
- Hezkidetzari nahiz genero eta berdintasunari buruzko gaiak lantzeko edo genero-indarkeriaren aurka egiteko lan-taldeetan edo mintegietan parte hartzea. 0,20 puntu ikastaro bakoitzeko.

- V. taldeko plazak:

- Zuzendari edo ikasketa-buru izatea: 0,50 puntu, urte bakoitzeko.
- Ziklo edo etapako idazkari edo koordinatzaile izatea: 0,20 puntu, urte bakoitzeko.
- Zuzendaritza-taldeak prestatzeko programak koordinatzea eta kudeatzea: 0,50 puntu, urte bakoitzeko.

- VI. taldeko plazak:

- Ikastetxean, norberaren esperientziak eta hezkidetzari, elkarbizitza, balio-hezkuntza nahiz bizitza-trebetasunei buruzko prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak koordinatzea: 0,50 puntu ikasturte bakoitzeko.



- Elkarbizitza eta bakea, hezkidetzeta eta balio-hezkuntzari buruzko prestakuntzak eta berrikuntzak lantzeko mintegietan, lan-taldeetan edo proiektuetan parte hartzea: 0,20 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Ikasgelan edo ikastetxean, elkarbizitzari, bizitza-trebetasunei, hezkidetzari eta balio-hezkuntzari buruzko materialak sortzea eta aplikatzea: gehienez ere, puntu bat.

- VII. taldeko plazak:

- Ikastetxeak Ikas Komunitate bihurtzeko prozesuan parte hartzea: gehienez ere, puntu bat.
- Ikas Komunitateei buruzko ikastaroak antolatzen, dinamizatzen eta ematen parte hartzea: gehienez ere, 0,5 puntu.
- Ikas Komunitateen Proiektuarekin lotutako materialak biltzea eta sortzea: gehienez ere, 0,5 puntu.

- VIII. taldeko plazak:

- Europako proiektuetan parte hartzea: 0,20 puntu, proiektu bakoitzeko (gehienez ere, 0,5 puntu).
- Europarekin lotutako ikasmaterialak eta dibulgazio-materialak sortzea: gehienez ere, 0,5 puntu.
- Europarekin lotutako lan-taldeak koordinatzea: gehienez ere, 0,5 puntu.
- Irakasleei Europarekin lotutako prestakuntza-ikastaroak ematea: gehienez ere, 0,5 puntu.

- IX. taldeko plazak:

- Hizkuntzen lanketa integratuaren proiektuetan parte hartzea: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
- Hizkuntza-didaktikarekin lotutako ikasmaterialak ikertzen, sortzen eta ikasgelan aplikatzen esperientzia izatea: 0,50 puntu, ikasturte bakoitzeko.

- X. taldeko plazak:

- Hizkuntzen lanketa integratua egiteko proiektu edo seminarioetan parte hartzea: 0,25 puntu, ikastaro bakoitzeko (gehienez ere, 1 puntu).
- Frantsesaren didaktikarekin lotutako ikasmaterialak ikertzen, sortzen eta ikasgelan aplikatzen esperientzia izatea: 0,50 puntu, ikastaro bakoitzeko.
- Frantsesa irakastearekin lotutako lan-taldeak koordinatzea: 0,50 puntu, ikastaro bakoitzeko (gehienez ere, 1 puntu).
- Frantsesa ikasten ari diren ikasleentzat dauden Europako programetan parte hartzea: 0,25 puntu, ikastaro bakoitzeko (gehienez ere, 1 puntu).

- XI. taldeko plazak:

- Zientziekin lotutako berrikuntza-proiektuak kudeatzen eta ezartzen esperientzia izatea: gehienez ere, puntu bat.
- Zientziekin lotutako ikasmaterialak (formatu ezberdinetakoak) sortzen eta aplikatzen esperientzia izatea: gehienez ere, puntu bat.

- XII. taldeko plazak:

- Eskolako Agenda 21 proiektuan edo Garapen Iraunkorrerako hezkuntza-proiektuetan parte hartzea: 0,15 puntu, ikasturte bakoitzeko.
- Eskolako Agenda 21 proiektua edo Garapen Iraunkorrerako hezkuntza-proiektuak koordinatzea eta dinamizatzea: 0,30 puntu, ikasturte bakoitzeko.
- Sare birtualak sortzen, indartzen eta dinamizatzen nahiz datu-baseak sortzen eta mantentzen esperientzia izatea: gehienez ere, 0,50 puntu.